5519

EBAZPENA, 2008ko irailaren 15ekoa, Kultura Ondarearen zuzendariarena, euskarara bikoiztutako edota azpidatzitako ikus-entzunezkoen ekoizpenen estreinaldiak sustatzeko ekimenetarako diru-laguntzak nola eman arautzen duen Aginduaren babespean aurkeztutako eskariak aztertu eta ebaluatuko dituen Balorazio Batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Kultura sailburuaren 2008ko maiatzaren 22ko Agindua, euskarara bikoiztutako edota azpidatzitako ikus-entzunezkoen ekoizpenen estreinaldiak sustatzeko ekimenetarako diru-laguntzak nola eman arautzen duena.

Kontuan izanda agindu honen 8. artikuluak Balorazio Batzordearen osaera EHAAn argitara emango dela jasotzen duela,

Honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen osaera argitaratzea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Iñaki Gomez Sarasola, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzordekideak: Aintzane Pérez del Palomar anderea, José Luis Rebordinos Miramón jauna.

Idazkaria: Luis Angel Agirre Muxika, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria.

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 15a.

(Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ordez, otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera).

Kultura Ondarearen zuzendaria,
ARANTZA ARZAMENDI SESÉ.

5519

RESOLUCIÓN de 15 de septiembre de 2008, de la Directora de Patrimonio Cultural, por la que se hace pública la composición de la Comisión de Valoración encargada del análisis y evaluación de las solicitudes presentadas al amparo de la orden mediante la que se regula la concesión de subvenciones para iniciativas destinadas a fomentar los estrenos de producciones audiovisuales dobladas y/o subtituladas al euskera.

Vista la orden de 22 de mayo de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para iniciativas destinadas a fomentar los estrenos de producciones audiovisuales dobladas y/o subtituladas al euskera.

Considerando que el artículo 8 de la citada orden dispone que la composición de la Comisión de Valoración para el análisis y evaluación de las solicitudes se hará pública mediante inserción en el BOPV.

En su virtud,

DISPONGO:

Primero.– Publicar la composición de la Comisión de Valoración, que estará integrada por los siguientes miembros:

Presidente: D. Iñaki Gómez Sarasola, Director de Promoción de la Cultura.

Vocales: D.ª Aintzane Pérez del Palomar, D. José Luis Rebordinos Miramón.

Secretario: D. Luis Ángel Agirre Muxika, técnico de la Dirección de Promoción de la Cultura.

Segundo.– Ordenar, para general conocimiento, la publicación de la presente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de septiembre de 2008.

(En ausencia del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes según la DA 1.ª del Decreto 25/2006, de 14 de febrero)

La Directora de Patrimonio Cultural,
ARANTZA ARZAMENDI SESÉ.